

HERRIEN NORTASUNETIK BURUJABETZARA

Parres Xarritonen Liburu bat

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Le livre de Pierre Charritton, connu par ailleurs comme promoteur et organisateur de diverses initiatives dans le monde de la culture basque, constitue une synthèse historico-critique et théologico-morale sur le principe du droit des peuples à leur identité.

Il essaie de fonder la réaffirmation de ce droit sur les sciences humaines modernes telles que l'Anthropologie Culturelle, la Linguistique et le Droit International.

Sans doute pour s'en tenir rigoureusement à l'objectif fixé dans l'ouvrage il ne traite point du droit des peuples à l'autodétermination, qui cependant affleure à plusieurs reprises comme thème à développer.

Par contre l'auteur prend soin de conduire sa réflexion et son exposé historico-théorique en référence constante et concrète à deux peuples qui lui tiennent à coeur:
le Pays Basque et le Québec.

Una síntesis histórico-crítica y teológico-moral sobre el principio del derecho de los pueblos a su identidad: esto es el libro de Parres Xarritton, conocido por lo demás sobre todo como activo promotor de iniciativas y organizador de obras exitosas en el mundo de la cultura vasca.

Trata de fundamentar una reafirmación renovadora de ese derecho sobre las modernas ciencias humanas, como la Antropología cultural, la Lingüística y el Derecho internacional.

Quizás por atenerse rigurosamente al objetivo de su libro, no quiere tratar el derecho de autodeterminación de los pueblos, que, sin embargo, queda insinuado diversas veces, como tema a desarrollar.

Por el contrario, el autor tiene buen cuidado de que su reflexión y exposición histórico-teórica lleve una referencia constante y derive en una aplicación concreta a dos pueblos, entrañables para él:
Euskal Herria y Québec.



Euskarazko titulua neurea dut; fran-
txesezkoa egilearena da. Berak printzi-
pioa finkatzen du: Herri bakoitzak ber-
bera izateko duen eskubidea; nik kon-
klusioa atera nahi nuke: Herri bakoitzak
bere buruaren jabe izateko duen eskudi-
dea.

Liburuak ez da gaur goizekoa, ba du
urte pare bat. Kanadan argitaratua; Les
Editions Fides argitaletxeak. Aspalditik
merezia zuen aurkezpena aldizkari hon-
etan, edo beste edonon; orain arte edu-
ki ez baldin badu, neuri arrua ere da.
Baina orain arte gure inguruan aski za-
baldu gabe dagoela uste dut; eta orain-
dik ere garaiz gabiltzalakoan nago. Baina
honezkerok ez da aski lehen momentuko
aurkezpen propagandistikoa egitea; ira-
kurketa kritikoa egiteko ordua da. Eta
liburuak gai eta bide ematen du honeta-
rako.

Asmoa eta eskema

Honela zehazten du liburugileak
bere asmoa: "Bereziki aztertu nahi
dugun arazoa zera da: kulturek eta
herriek bizitzeko eta beren nortasunari
eusteko duten eskubidea". Baina liburu-
gilearen ikuspegia etiko-teologikoa da;
horregatik, arazo hori honela konkreta-
tzen du: "Hauxe da aztertu nahi dugun
arazoa: Gaurko Elizarentzat herri bako-
itzak bere nortasunari buruz duen esku-
bidearen esangura eta garrantzia".


Ohartzekoa da, nola asmoaren for-
mulazioan bertan lotzen eta berdintzen
dituen herria eta kultura kontzeptuak.
Herria eta nazioa sinonimotzat hartu
ondoren, autoreak zera oharrarazten du:
Nazio Batuen inguruan gaur nahiago du-
tela herria erabili nazioa baino, kontzeptu
honen anbiguotasuna uxatzeko. Her-
ria, berriz, honela definitzen da: bere
kultura propioa eta bere nortasunaz jabe-
turik dagoen giza taldea. Beraz, bere
kultura bereziak berezitzen du herri ba-
koitza. Herria eta kultura nolabait tru-
kagarriak dira. Herria kultur komunita-
tea da; eta komunitate bezala pertsona
moralizat hartzen da eta eskudidedun
da.

Laburtuz, herriek beren nortasunari
buruz duten eskubidea beren kulturati
buruz duten eskubide bezala ulertzen
da.

Hiru parte ditu liburuaren gorputzak:
1) Elizak, bere historian zehar, kulturaz-
koei buruz izan duen jokabidea; 2) He-
rrien nortasun-eskubideari buruz Elizak
irakatsi duenaren azterketa kritikoa;
3) Antropologiak, hizkuntzalaritzak,
soziologiak eta zuzenbideak eskubide
horri buruz argitzen ditugutena.

Eskema ezezik, azalpenaren haria ere
oso zuzena eta argia du liburuak. Aipa-

men eta ohar eta guzti, liburuak ez da
inola ere astuna gertatzen. Tesi akade-
mikoaren bihurritasunaren eta astunta-
sunaren berdur litzatekeenarentzat
beharrezkoa da oharhori egitea. Bestal-
de, autorea ezagutzen duenari ez zaio
inola ere harrigarria gertatuko azalpe-
nean jartzen duen barruko beroa; argu-
mentazioaren hotza inoiz galdu gabe,
hala ere.



Historia eta kritika

Historiaren, teologiaren eta giza zien-
tzien artean higitzen da liburuak. Elizaren
historia, herrien nortasun-eskubideari
dagokionez, ez da beti lerrozuzena izan.
Inoiz kontradiktorioa ere izan da. Nahiz
eta teologia sarritan historiak berak bal-
dintzatua egon, hala ere, eta liburugilea-
ren asmotan, historia horren kritika izan
nahi du. Bestalde, giza zientzien aurre-
rapenak teologiaren berrikuntzaren
oinarria dakar.

Hiru mailatan aztertzen du liburuak
Elizaren jokabidea, historian zehar: hiz-
kuntzaren mailan, kulturaren mailan eta
nazionalismoaren mailan.

Lehen mailan kristautasun osoa har-
tzen du begirapean eta horren barruan
izan diren jokabide izberdinak aztertzen
ditu, Ekialdeko Elizen eta Mendebaleko
Elizaren jokabide ia kontrakoak nabar-
menduz. Izan ere, Ekialdean bertako
hizkuntza nazionalak onartu eta erabili
dituen bitartean, Mendebalean latiniza-
zioaren bidea jarraitu zuen Elizak. Eran
berean, Erdiaroan, aro modernoan eta
Vatikanoko II. Kontzilioraino hizkun-
tzei buruz kristautasunak ekarri duen
jokabidea biltzen du.

Bigarren mailan, kulturenean alegia,
Katilizismoak aro modernoan, bereziki
Amerika konkistatuan eta Asia urruti-
koan, eraman duen jokabide nahasia
nabarmentzen du autoreak. Izan ere,
batzutan misiolariak benetako begirunez
herrien kulturak errespetatzen eta pro-
mozionatzen dituzten bitartean, beste
askoten "tabula rasa" metodoaren ara-
bera, mendebaldartzen saiatu dira, inoiz

Erromatik ematen ziren irakatsien kon-
tra gainera. Tirabira honetan historia
osorako famatuak gertatu ziren txinatar
erritoei buruzko burrukak, XVI. mende-
an hasi eta XVIII. mendera arte. Xa-
bierko San Frantzisko eredu gertatzen
da giro honetan, bere misiolaritza
"konkista espiritualaren" asmoa uxatuz
eta kultur asimilazioaren kontra joko-
tuz.

Hirugarren mailan, Aulki-santuak na-
zionalismoari buruz asken bi mende-
otan, eta bereziki hogeigarrenean, izan
duen jokabidea aztertzen du autoreak.
Hiru nazionalismo modu bereizten ditu:
nazionalismo totalitarioa eta honen kon-
trako burruka Elizaren aldetik; naziona-
lismo kontserbazalea, eta honekiko
aliantza Aulki-santuaren aldetik; nazio-
nalismo askatzailea, eta honi buruzko
jarrera ekibokoa, Europan eta Amerike-
tan horren kontra jokatuz eta mende
honetan, berriz, deskolonizazioaren al-
deko jarrera hartuz.

Bigarren partean, Hierarkiaren al-
dian aldiko diplomazia alde batera utzirik,
Elizaren irakatsi esplizitoa azaltzen du
liburuak: aurrenik teologoena, gero do-
kumentu ofizialena.

Bi teologo-jurista nabarmentzen dira XVI. mendean, zuzenbide nazioarte-koan: Francisco de Vitoria eta Francisco Suárez; XIX. mendian Luigi Taparelli d'Azeglio nabarmentzen da, herrien nortasun-eskubidearen aldeko beste irakatsien bidez. "Ba dirudi, dio berak, herr guztiak beren nazionalitatea sustatzera behartuak daudela gaurregun". Hala ere, besterik gabe, ez da ausartzen nazionalitatearen independentzia politikoarekiko eskubidea defendatzen. Azkenik, J.T. Delos, frantzesar nabarmentzen da XX. mendean herrien nortasun-eskubidearen defentsan.

Elizaren irakaskuntza ofiziala aztertzeke mende honetako Aitasantuen hainbat dokumentu, bai eta Vatikanoko KK. Kontzilioarenak, azaltzen ditu. Misio-entzikliketatik hasiz, Pio XII. aren zen bait hitzaldi, Joan XXIII. are *Pacem in terris* entziklika eta azken Kontzilioaren Konstituzio nagusiak barrutik agertzen ditu autoreak. Hala ere, kapituluaren azkenean Elizaren jokabide ofiziala, bere irakatsien argitan hain zuzen, kritikatu eta kontradikzio horren sustraia bilatu beharra aurkitzen du liburugileak.

Hirugarren partean, liburuaren asmatoko gaia argitzeko eta zuzentzeko giza zientzia modernoek ematen dira: bereziki kultur antropologiak eta soziologiak, hizkuntzalaritzak eta zuzenbideak irakasten dituztenak. Denek puntu batetara iristen direla adierazten du autoreak: hau da, herrien kulturazko nortasuna baieztatzea eta defendatzea. Nazioarteko zuzenbidearen barruan zenbait akordio aztertzean, lau puntu oinarriko nabarmentzen dira; nazionalitate-printzipioa, gutxiengoaren eskubidea, gizakiaren eskubideak eta autodeterminazio-eskubidea. Zalantzarik ez nazioarteko akordio horietan hainbat kontradikzio agertzen dela, Estatuaren momentuko interesen arabera.

Azkenik, liburuak baieztatu nahi duen tesiarentzako oinarri teologikoak eta moralak bilatzen ditu liburugileak; horretarako baliagarriak izan zaizkio giza zientzien ekarriak. Eliz dokumentuak, gogarte teologikoa eta kristau errebelazioaren datuak biltzen ditu, herrien nortasun-eskubideari buruzko ikuspegi sistematikoa eta sintetikoa emateko. Liburugilearen ustez, azken Kontzilioa motz gelditu da eskubide horri buruz, eta ondoren Elizak ez du oraindik bere barneko jokabidean benetan hartu kulturen haniztasuna eta ezberdintasuna eta herrien nortasun-eskubidea.

Herrien nortasuna eta autodeterminazioa

Liburugilearen asmoa argia da: He-

rrien nortasun-eskubidea finkatzea. Baina bide horretan behin baino gehiagotan beste arazo bat ikutzen du: hau da, herrien autodeterminazio-arazoa.

Alde batetik, azken gerra mundialaren ondorengo deskolonizazioaren dinamikaren eraginez, Aitasantuek behin eta berriro baieztatu dute herri kolonizatuaren independentziaren eskubidea. Baina independentzia herrien autodeterminazio-eskubidearen ondorioa besterik ez da. Areago, Volta Garaiko apezpikuek herriaren independentzia eta norbanakoaren askatasuna berdintzen dituzte. Zoritxarrez, Eliz Hierarkiaren baieztapen horiek ez dute gehiegi balio izan, Europa edo Amerikako Estatuaren barruko Herri ukatuen arazoa aurrez aurre gertatu denean.

tuen eta Herri Estaturagabeen arteko bereizkuntza ezariz.

Zalantza, kontradikzio eta nahisketa hauen aurrean, Xarritton liburugileak ez du ikutu nahi autodeterminazioaren arazoa, etikaren eta teologiaren aldetik alegria.

Egia esan, liburuaren haseran bertan autoreak bere asmoa argi emana du, eta horri eusten saiatzen da, nahiz esta ondo konturatu herrien nortasun-eskubidearen, autodeterminazioaren eta independentziaren artean lotura berezia dagoela. Ez dago liburugileari bere zuzeneko asmoa baino harutzago joatea eskatzerik.

Hala ere, liburuak irakurri ondoren, eta liburuak berak horretarako bidea



Testuinguru honen barruan ONUk ere, 1966an, gizakiaren eta gutxiengoaren eskubideak aitortuz batera, herrien burujabetza aitortzen du: "Herri guztiek beren buruz nahierara jokatzeko eskubidea dute". Burujabetza honek esangura politikoa du, eta autodeterminazioarekiko eskubidea esan nahi du. Zoritxarrez hori baieztatu duten Estatu berberiek kontrakoa esateko prest daude, beren interes kondretuak jokoan daudenean. Algeriako Deklarazioak ere ez du arazo hau erabat argitzen, Herri-Esta-


ematen duelako, nortasun-eskubidearen muga pasa beharra sentitzen du irakurleak. Nortasun-eskubidea herburua izan daiteke -eta autoreak aitortzen duenez, horretarako ez da derrigorrezkoa independentzia politikoa-; baina herburu bat herriaren nortasuna benetan gauzatu baldin bada, helbidea finkatu beharra dago; eta hnoek **autodeterminazioa** izena du. Bestela esanik, nortasun-eskubidea aurren-aurreneko printzipioa baldin bada, autodeterminazioa ondo-ondotik datorkiona da.

Horregatik, liburua irakurri ondoren, autodeterminazio-eskubidea ere etikaren eta teologiaren aldetik bultzatu eta sakondu beharra ikusten du irakurleak.

Teologia konkretua

Abstraktuan egiten den teologiaz asperturik gaude, geure inguruko gizartean eta geure herrian aztertzen diren arazo horiek bizi-biziak ditugunean batez ere.

Gure liburugilea teologiazko gogarte konkretua eta bizia egiten saiatu da: alde batetik, historia erreala aurrez-aurre jarritz eta giza zientzien argitan teologia tradizionala kritikatu eta gaurkotuz; eta bestetik, gogarte teologikoa kasu kondretu eta bizien aurrean egiaztatu edo gezurtatu. Autorearentzat, Euskal Herria eta Québec dira kasu horiek. Beretzat oso ezagunak eta bihotzkoak kasu biak. Bi Herri hauei buruz Eliza ofizialak historian zehar eraman duen jokabide argi-iluna liburu osoan nabari den pentsabide-jokabide kontradiktorien berres pena besterik ez da. Baina kontutan eduki beharra dago, liburuaren lehen orrialdetatik hasita, liburugilearen gogo-gogoan daudela Euskal Herriaren eta Québec-en herri-nortasunaren aldeko burrukak.




Dena dela, eta oraingoa Euskal Herriari zuzenean begiratu, liburu hau luzatu beharra dagoela iruditzen zait. Hau da, gure Herriaren herritasuna, horren aldeko burruka historikoaren funts eta helburu etiko-teologikoa sakondu beharra dagoela uste dut.

Bestalde, hemengo Elizari behin eta berriro eskabide hau aurrez aurre jarri

beharra dago: alde batetik, herrien notatsun-eta autodeterminazio-eskubidea, inolako bihurritasun diplomatikoak alde batera utziz, gure Herriaren aurrean aitortzea eta irakastea; eta bestetik, bere barne-bizitzan eta barne-erakuntzan Herri honen nortasuna mamitzea eta finkatzea: hau da, instituzioen, liturgiaren eta hizkuntzaren mailan Herri honen herri-gintzaren alde jokatzeko, honen nortasun-eskubidea babestea eta aurrera eramatea.

Liburuaren gorputzaren azkenean autoreak dakarren aipua Euskal Elizarentzat ere balio duela esan beharra dago: "Aingeruak gizakunde-misterioan bete zuen eginkizun berbera bete behar du misiolariak herrien barruan, hauei beren Kristoa birsortzeko eginkizuna utziaz: hauen gain etorriko da Espiritu Santua, eta Goigoikoaren indarrak beren itzalpean hartuko ditu (Ik. Lk. 1,35). Horrela Herri horien barruan jaioko dena benetan beren giza Semea izango da; berau bakarrik izango da horien Salbatzaile izateko gauza". Zoghby gotzairena da aipua.

Liburuaren hitzaurrea egin duenarentzat zirikagarria izan omen da liburu. Halaxe izan da neretzat ere. Eta uste dudanez, halaxe izango da euskal Elizarentzat, Kristamentzat, teologidentzat, eta burrukalari guztientzat.



brazos. Que ellos son mayores responsables por consentir lo que está ocurriendo.

A PESAR DE LOS CURAS, AUN CONSERVO LA

FE. Yo también vi bien la llegada del Concilio. Yo colaboré en mi parroquia con los curas, a los cambios como tantos jóvenes de entonces que lo veíamos con simpatía. Cuando me di

cuenta -como otros también-, de que se nos estaba engañando, dí marcha atrás.

Porque, aquellos curas, los ví secularizarse y a alguno hasta con la pistola en la

mano para -según él-, defender a Euskadi.

A.M.G.
38 años.
Casado con dos hijos.